

Kultura

'Divenire' dantza ikuskizuna eskainiko dute Logela Multimediaik eta Circle of Trust taldeak Durangon eta Elorrion >11



Nazional Mailako liga irabazi du Tabirako Baqueko nesken taldeak

Liga amaitzeko azken jardunaldiaren faltan, garaipen biko aldea ateratzen dio Leioari. Igoera fasea jokatu du orain

Ligako txapeldun dela jokatu du azken jardunaldia Burlatan (Nafarroa) Tabirako Baqueren emakume taldeak. Nazional Mailan lider dago eta garaipen biko aldea ateratzen dio Leioa taldeari. Orain arte jokatuak 25 partiduetatik 21 irabazi dituzte Du-

rangoko neskek. Mailako talderik saskiratzailleena da, momentuz, 1.578 puntugaz; sailkapen horretan bigarren dagoen Bera Berak baino 48 puntu gehiago ditu. Maiatzaren 16tik 18ra Estatu mailako Emakumeen 2. ligarako igoera fasea jokatu du. >15

Landako Gunearen kudeaketa eztabaidagai

Landako Gunearen datu ekonomikoek LESA enpresa publikoaren kudeaketari buruzko eztabaida mahaigaineratu dute udalean >3



hitz

liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:



HELDUENTZAT
MUNDUKO
BANDARIK TXARRENA
Jose Carlos Fernandes



UME ETA GAZTEENTZAT
EZETZ ASMATU
ZENBAT MAITE ZAITUDAN
S. McBratney eta A. Jeram



MUSIKA
DA
Zea Mays

Solaguren kalea, 3
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
E-maila: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

urtiaga

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI,
BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA,
TEILA, ZERAMIKA ETÁ HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETÁ EZARPENA

Durango > 2

Nagusiek Udaltzaingoa utzi ahalko dituzte etxeko giltzak, arrisku egoerei aurre egiteko

Durangaldea > 4

'Anbotoren lagun' egiteko kanpaina martxan da

Izurtza > 9

Saihesbidea Plan Orokorretik atera behar izan dute

Durangaldea > 6

Gure Esku Dago martxan da Durangon eta Elorrion

Herririk herri

> ATXONDO

Errepide berriko obren itxitura hobetzeko eskatu diote Aldundiari

> JOSEBA DERTEANO

Gerediaga-Beasain errepideko obretako eremua inguruko landetatik eta basoetatik bereizten duen itxitura hobetzeko eskatuko dio Atxondoko Udalak Aldundiari beste behin. Izan ere, baserritarren zaldi batzuek inguruko lurretan bazkatzen dute eta orain dauden plastikozko itxiturak gainetik igarotzen dituzte, Memaia auzoaren inguruan, esaterako. Orain hilabete batzuk heldu zen baserritar baten lehen kexa. Hesia igarota, zaldia errepidera sartu eta istripua eragin zezakeela zen bere ardura nagusia. Udal ordezkariak ere arriskua dagoela uste dute, eta Aldundiari itxitura hobetzeko eskatuko diote. Aldundiari eskaera hori egiten dioten bigarren aldia izango da.

> ELORRIO

Elkartasuna adieraziko diote Zengotitabengoa presoari Lisboan

> M.O.

Andoni Zengotitabengoa Lisboan (Portugal) dago preso 2010etik. ETako kide izatea egotzita. Hamabi urteko zigorra ezarri zioten lehergailuak gordetzeagatik. Segurtasun handiko kartzela batean dago, eta elkartasun martxa egingo dute asteburuan hainbat elorriarrek, bere bizi-baldintzak salatzen. Besteak beste, alabak urtean behin bakarrik besarkatzeko aukera dauka. Izan ere, senide guztiek ez dute aukera bera bisitatzeko, eta alabek urtean behin daukate kristalik bako bisita.

> DURANGO

Udaltzaingoan utzi ahalko dituzte giltzak nagusiek

Nagusien etxeetan arrisku egoera edo arazoren bat sortzen bada, udaltzainek segituan zabaldu ahal izango dute atea udalaren zerbitzu berriari esker



Nagusien etxeetako giltzen kopiekin larrialdi zerbitzuak bertara sartu ahalko dira.

> MARKEL ONAINDIA

Pertsona nagusi asko bakarrik bizi dira, eta batzuetan arrisku egoerak sortzen dira euren etxeetan. Bizilagunak edo senideak kanpora joaten badira,

adibidez, nor lagunduko die nagusiei? Kezka horri konponbide bat emateko asmoz, zerbitzu berri bat ipini du martxan Durangoko Udalak. Hemendik aurrera nagusiek Udaltzain-

goan utzi ahalko dituzte etxeko giltzen kopiak. Horrela, arrisku egoera bat edo arazoren bat sortzen bada, udaltzainek atea zabaldu ahalko dute segituan, eta larrialdi zerbitzuak etxera sar-

tuko dira. Ekimenaren zergatia prentsa ohar bidez azaldu du udalak. "Sor litezkeen kalteak saihesteaz gainera, di-da batean arta daiteke pertsona nagusia".

Zerbitzua erabili gura dutenek udaleko Gizarte Ekintza Sailean eman behar dute izena. Gainera, telelaguntza zerbitzua erabiltzen dutenek ere gorde ahalko dituzte giltzak Udaltzaingoan.

Zerbitzua erabili gura dutenek udaleko Gizarte Ekintza Sailean eman behar dute izena

Nagusiak, gero eta gehiago

Goiztidi Diaz Gizarte Ekintzako zinegotziak azaldu du pertsona nagusien sektorea gero eta handiagoa dela, eta, horregatik, eurrei laguntzeko hainbat ekintza garatu dituztela. 80 urtetik gorako etxeetan ke detektatutako doan ipintzea, Beharrianen Behatokia eta arreta psikosozialerako tailerra horren adibide direla esan du Diazek.

Andra Mariko iturriaren lekualdatzea salatu dute auzotar batzuek



Iturria lurretaren desanexioaren sinbologia da.

> JONE GUENETXEA

Andra Mariko iturria lekuz aldatzeko udalak hartutako erabakiaren kontra agertu dira hainbat auzokide. Joan zen astean iturria zigilatu zuten protesta ekintza batean. Azaldu dutenez, "ez da onargarria udaletxeak datozen asteetan iturri hau mugitzeko obra egiten hasi nahi izatea, taberna pribatu batek eskatu duelako eta beste inorekin kontaktu gabe".

Udal arduradunek diotenez, iturria terrazatik metro batzuk aldentzeko erabakia batzordean onartu zuten, erabiltzaileek eta terrazan daudenek elkarri enbarazurik ez egiteko. Udalak iturria konpontzeko asmoa duenez, leku aldaketa egiteko aprobeztatuko dute. Tabernak ordainduko du lekualdaketa.

Herri Urratsera joateko autobusa irtengo da Durangotik

> J.G.

Maiatzaren 11n ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusa jarri dute Durangotik, hainbat herritarren ekimenez. Izena emateko aukera dago Intxaurre elkartearen eta Plateruena Kafe Antzokian. Landakoko autobus geltokitik irtengo dira maiatzaren 11n Senperera (Lapurdi), goizeko 09:00etan. Itzulera, berriz, arratsaldeko 19:00 ingururako aurreikusitako dute. Antolatzaileek diotenez, "pena da autobusik ez egotearren jendea ikastolen jaira ez joatea".

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9 48215-lurreta (Bizkaia) Tel.: 946 816 558 Erredakzioa: 946 232 523 Publizitatea: 946 217 902 publi@anboto.org

2014ko apirilaren 25a, 12. urtea - 542. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Administrazio burua: Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.

Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.

Maketa: Eider Alberdi.

Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga.

Argazkilaria: Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.

Landako Gunearen datu ekonomikoek gestioari buruzko eztabaida eragin dute udalean

Bilduk eta Aralarrek Landako Gunearen datu ekonomikoak zeintzuk diren jakinarazi dute

> MARKEL ONAINDIA

2004an zabaldu zuten Landako Gunea, Durangoko Azokaren egoitza izateagatik ezaguna egin den eraikina. Udala 7,5 milioi euroren truke egin zen pabiloiaren jabe, eta inbertsio horri aurre egiteko eskatutako 5,6 milioi euroko mailegua ordaintzen dabil oraindik. 2,6 milioi inguru falta dira, eta urteotan pilatutako interesa 845.000 eurora heldu da. Gainera, pabiloia kudeatzeko LESA enpresa publikoa sortu zuen udalak, eta azken sei urteetan 1.444.000 euro ipini ditu enpresaren gastu orokorra estaltzeko. Baina defizitarioa izan da, eta 300.000 euro gehiago suposatu dizkio. Beste 490.000 euro ere ordaindu ditu udalak, bere ekintza batzuk garatzeko Landako Gunea erabiltzearen. Datu horiek guztiak mahai gainera atera eta eztabaida eragin dute Bilduk eta Aralarrek.

“Errentagarria izango zela saldu ziguten”. Dani Maezturen berbak dira. EH Bildun batzen

diren alderdi biek esan dute ez dela errentagarria izan ekonomikoki, ezta sozialki ere. Pabiloiaren erabilera “oso txikia” da Eider Uriberen arabera. Bere ustez, oso garestia da alokairua, eta, ondorioz, herriko taldeek ezin izaten dute erabili. 2013an 28 ekitaldi antolatu ziren bertan.

Egoera horri buelta eman guran, LESA enpresa publikoa desegin eta kudeaketa udalak bere gain hartzeko alternatiba aurkeztu dute udalean. Dani Maeztuk azaldu du gestio zuzena ipini gura dutela martxan, Astarloa erakunde autonomotik kudeatuta. Horrela, urtean 75.000 euro aurrezteko lortuko luketela uste dute. Uribek erabileraz sakondu

Udalak azken sei urteetan 1.444.000 euro ipini ditu enpresaren gastu orokorra estaltzeko



Urtarrilean Berdeago ingurumen azokaren bigarren edizioa antolatu zen Landako Gunean.

du: “Badakigu horrelako espazio batek gastua behar duela, baina kontua da hutsik dagoela. Herritarrei zabaltzea gura dugu, erabilera soziala edukitzea”.

LESAko gerentea bota berri dute, eta egun bost behargin daude, hiru aparkalekuan eta beste biak administrazioan. Horiek subrogatu eta gerora lan eskaintza publikoa egitea gura du EH Bilduk. Bestalde, aparkalekua publiko izatea eta ordenantza bidez arautzea eskatu dute.

Babesik ez

EH Bilduren proposamenak ez du gainontzeko alderdien babesik jaso. EAJren gobernu taldeak adierazi du Bilduren eta Aralarren proposamena “ezjakintasun hutsaren gainean eraikita” dagoela. Jeltzaleen ustez, LESA desegin eta udaltik gestionatuz gero, “esparru zurrungoan” sartuko litzate-

ke: “Izugarri gehituko litzuke udalaren zuzeneko gastuak, eta jarduera ekonomikoan aritzeko enpresak daukan malgutasuna desagertuko litzateke”. EAJren iritziz, krisiak LESA eta negozio aukerak kaltetu ditu. Edozelan ere, enpresaren bideragarritasuna eta iraupena defendatu ditu. Gogoratu du enpresa gaztea dela, eta eskaintza eta bezeroak gutziz finkatu barik dauzkala.

Pilar Riosek (PSE-EE) ere esan du enpresa publikoaren alde daudela. Likidazioagaz aurrezki esanguratsurik ez litzatekeela lortuko uste du, eta gestioan ere igarriko litzatekeela: “Gaur egun kontuekiko daukagun kontrol totala murriztuko litzateke”. Riosek adierazi du ez dela sasoi ona LESA lako azpiegiturantz, baina euren ardura dela ekonomikoki eta sozialki gestio jasangarri bat egiten saiatzea. Pabiloiak bere gastuen zati

bat finantzatzeko aukera bakarra dagoela dio Riosek, enpresei alokatzea. Prezio bi daudela gogoratu du: bat enpresei ezartzen zaiena eta bestea udalak eta herriko elkarteek egiten dituzten ekintzetarako dagoena. Azken kasu horretan nabarmendu du sortzen den gastua estaltzeko (argia eta garbiketa, esaterako) prezio zehatza ipintzen dela, errentagarritasun soziala bultzatu guran. “Kasu gehienetan udalak diruz laguntzen du”.

Juan José Gastañazatorre PPko zinegotziaren arabera, kudeaketa ez da eraginkorra izan orain arte. “LESA dinamizatuko duen kudeatzaile berria topatzea garrantzitsua da bezero berriak aurkitzeko”. Gainera, lasaitasuna islatu du: “BEC, Ficoa eta Landako Gunea gisako proiektuak defizitarioak izango zirela hasieratik genekien, beraz, horrek ez nau arduratzen”.

> ABADIÑO

Herriko EAJren 110. urtemuga ospatzeko

Bazkaria izango dute jeltzaleek maiatzaren 18an

> ITSASO ESTEBAN

Abadiñoako EAJ alderdia sortu zela 110 urte bete direla ospatzeko, egitaraua antolatu dute. Maiatzaren 18an eta 21ean egingo dituzte ospakizunak.

Batzokian elkartuko dira, maiatzaren 18an, 13:30ean, eta

“kalejira elektorala” egingo dute Zelaietan zehar: Izaskun Bilbao europarlamentaria eta Ixaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko burua gonbidatu dituzte ekitaldi horretara.

Ondoren, Zelaieta Hotelean batuko dira jeltzaleak bazkarita-

ra. Antolatzaileek esan dutenez, maiatzaren 11ra arte eman daiteke bazkari horretara joateko izena, Batzokian bertan.

Bestalde, maiatzaren 21ean *Agirre Lehendakariaren bizitza* izenburuko berbaldia eskainiko du Iñaki Goioaga Sabino Arana Fundazioko historialariak.

Alderdiaren historian “euskal nazionalismoaren ideal legitimo eta demokratikoen zabal-kundean lan egin duten lagun guztiei omenaldi xume bat egitea” da urteurreneko egitarauaren helburua.

> IURRETA

Institutuko ikasleen praktikak, udal eraikinetan

> AMAIA UGALDE

Iurretako Udalak eta Iurretako institutuak lankidetzan hitzarmena sinatu dute, Administrazio kudeaketako ikasleek praktikak udaleko zerbitzuetan egin ditzaten. Akordioan horrela jasota, kontu-hartzailetzan, erregistroan eta kultur etxean egingo

dituzte praktikak. Praktika aldiari daude honezkero ikasleak, eta ekainaren erdialdera arte egongo dira.

Akordioa luzatzeko aukera
Administrazio kudeaketako erdi mailako zikloko ikasketak planari dagozkion praktikak dira. Institutuak eta udalak sinatutako hitzarmenak ikasturte honetarako balioko du eta datozen urteetarako ere luzatuko da automatikoki, alde batek edo besteak horrela gura ez duela esan ezean.

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Goizane Azpiri Maurtua
Naturopata kolegiatua, 3515 zk.

Eskuzko tekniketan eta psikofisikoetan aditua
Kontrakturen aurkako masajea
Drainatze linfatikoa
Osteopatia
Teknika kraneo-sakrala eta erraietako teknika
Estetika naturala: aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak

Etxez etxeko zerbitzua (aurretiko hitzordua)

San Ignazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599

> OTXANDIO**Sendabelarren gaineko ikastaroa hasiko dute martitzenean****> J.D.**

Urtero legez, Otxandioko Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu udaberrirako. Denetan apirilaren 28ra artekoa da izena emateko azken eguna udaletxean. Ikastaroetako bat sendabelarren gainekoa da; apirilaren 29an hasi eta maiatzaren 13ra arte martitzenero garatuko da. Ikastaroa EHNErekin batera antolatu du udalak. Izen-ematea bost euro da Otxandion erroldatuta daudenentzat eta zazpi euro gainerakoentzat. Erlaxamendu ikastaroa ere antolatu du, Aمان-komunazgoko *Zaindu* programa baliatuta, eta mendekotasuna duten senide zaintzaileei bideratuta dago; eguaztenetan garatuko da, apirilaren 30etik maiatzaren 21era. Azkenik, xaboi naturalak zelan egin jakiteko ikastaroa egun bitan egingo dute: maiatzaren 12an eta 19an.

> ZALDIBAR**Borrokalari antifaxistak omenduko dituzte domekan****> ITSASO ESTEBAN**

XXII. Castet Eguna antolatu dute, 1937ko apirilaren 25ean Santamañezar mendian "faxisten kontra borrokan jausitako gudari eta milizianoak omentzeko". Domekan, apirilaren 27an, udaletxeko plazatik abiatuko dute Santamañezarrera igoera 10:00etan, eta ikurrina ipiniko dute tontorrean. Herrigunean jarraituko dute egitarauagaz: kalejiran joango dira Castet Elkartearen egoitzaraino, eta ekitaldi politikoa eta bazkaria egingo dituzte, ondoren, bertan.

Ahaztuak, Berriz 1936 Gogoratzan, Andikona eta Durango 1936 elkarten laguntzagaz antolatu ditu Castet Elkartek domekako ekitaldiok.

> DURANGALDEA**'Anbotoren lagun' egiteko kanpaina martxan dago****'Anboto'-k asteburuko egonaldiak zozkatuko ditu lagunaren artean**

'Anboto' astekariak 10.000 ale banatzen ditu barikuro, Durangaldean.

> JOSEBA DERTEANO

Anboto astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria barikuetan Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomiko emateko aukera ere urtean 20 euro ordainduta. *Anboto*

2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkarten ekimenez. "Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomiko emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortzea bururatu zitzaigun", azaldu du Jone Guenetxea *Anbotoko* zuzendariak. "Zailtasun ekonomikoei aurre

egiteko diru iturri garrantzitsua da guretzat". Gaineratu duenez, "lagun-talde horri esker emateko sasoia da".

Asteburua Oviedon

Anbotoren lagun-taldea handitzea izango da kanpainaren helburua aurrerantzean. "Hainbeste urtean gure alde isileko aha-

legina egin dutenei eta lagun berriei eskerrak emateko, Eroski Bidaiak agentziarekin batera asteburuetako egonaldiak zoztze egingo ditugu", adierazi du *Anbotoko* zuzendariak. Lehen egonaldia Oviedoko Las Caldas Villa Termal bainuetxean

"Eroski Bidaiarekin batera asteburuetako egonaldiak zoztze egingo ditugu", dio 'Anboto'-ko zuzendariak

izango da. Bi lagunentzako gau biko egonaldiaz gozatzeko aukera izango dute *Anbotoren lagunek*. Ostatua, gosaria eta El Manantial zentro termalera edo Aquaxanara sarrera lortuko dute. Lehendik lagun direnek zuzenean zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. *Anboto@anboto.org* helbidera idatzi, 946 816 558 telefono zenbakira deitu edo orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidaltzeko aukera dago, *Anbotori* babes emateagaz batera asteburuetako egonaldien zozketetan parte hartzeko.

**Juan Zamalloa**
Jubilatua
IURRETA

Euskararen alde egin eta gure hizkuntza bultzatzeko aukera paregabea da *Anbotoren lagun* izatea. Gainera, niri oso ondo iruditzen zait herrikoa eta herriarentzat den astekari bat bultzatzea. Nire ustez merezi du diru kantitate bat ordaintzea Durangaldeko albisteak lantzen dituen egunkari bat ostiralero-ostiralero etxean jasotzearen truke. Ni itxaroten egoten naiz *Anboto* etxera noiz iritsiko, Iurretako eta Durangaldeko informazioaren berri izateko. Etorkizunera begira, beharrezko ikusten dut jendeak euskarazko komunikabide txikiei laguntza handiago ematea.

**Josune Aranguren**
Kultur teknikaria
DURANGO

Niretzat pertsonalki *Anbotoren lagun* izatea gauza handia eta onuragarria da. Egiten den ekarpena oso txikia da eta emaitza, berriz, handia; azken batean, kalitatezko egunkari bat lortzeko aukera izaten dugulako. Horretaz gainera, egiten dugun ekarpen txiki horrekin euskarazko komunikabide guztiak, ez *Anboto* bakarrik, bultzatzea eta sustatu ahal izatea da gure xedea. Gainera, nire ustez, diru kantitate txiki hori ordainduta, *Anbotoren lagunon* asmoa astekariko langileek astero-astero *Anboto* kaleratzeko egiten duten ahalegin eta lan hori nola edo hala eskertzea ere bada.

**Alfon Arroio**
Kazetaria
ABADIÑO

Durangaldean beharrezkoa zen astekari baten faltan geunden eta *Anbotori* eta euskal prentsari laguntzeko beharrezko ikusi nuen *Anbotoren lagun* egitea. Durangaldeko euskaldunen komunitate baten parte izatea da. Gainera, ekarpen txiki hori egitea euskaldun guztiok egin beharko genukeen gauza bat dela uste dut. Kazetaria naizen aldetik, euskal prentsaren kontsumitzaileak behar direla ikusten dut, eta laguntza bat ematea behar-beharrezkoa da. Azken batean, gure ekarpenarekin *Anbotok* gertutasuna, eta inguruko berriak era txukunean, modernoan eta serioan eskaintzen dizkigu.

Anbotoko lagunaren artean Eroski bidaiak agentziaren eskutik asteburuko egonaldia zozkatuko dugu hilean behin.



Anetsetan? Egizu lehen!

**ASTEBURU BAT OVIEDOKO LAS CALDAS VILLA TERMAL BAINUETXEAN**

Bi gauko asteburu bat bi pertsonarentzat; ostatuaz eta gosariatz gainera, El Manantial zentro termalerako edo Aquaxanarako sarrera. Behe-denboraldia 2014.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

anboto
lagunak

@
anboto@
anboto.org

946
816
558

Izen-deiturak
Helbidea / Herria
Posta kodea
Telefona
Anboto komunikabideak - DHK
Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA



Gorputz desberdina, baina bihotz berbera.



FORD **FOCUS**

> EcoBoost motorra

Formula Ford auto bat gidatzearen sentsazioa.

Auto bi hauek antzekotasun asko dituzte: EcoBoost 1.0 l motorra. Zuzeneko injekziodun hiru zilindroko gasolina motorra, banaketa aldakorra eta turbokonpresorea. Kirol-automobilak menderatzeko gai Nürburgring zirkuituan, 5,1 litro bakarrik kontsumituta 100 kilometroan.

EcoBoost motorra. Gasolina auto baten potentzia eta diesel baten eraginkortasuna.

Informazio gehiago 'ford.es' webgunean.

12.990€

www.fordkondia.com



ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA

Tel.: 944 815 135

BERRIA



FORD **KA**

> Auto-Start-Stop sistemarekin

Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabea.

Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarra delako.

Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire girotuarekin eta MP3arekin.

5.990€



Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?

> DURANGALDEA

Gure Esku Dago martxan dago Durangon eta Elorrion

Elorrion martitzenean aurkeztuko dute Gure Esku Dago; Durangon eguaztenean



Abadiñoko hainbat herritar batu dira dagoeneko dinamikara.

> MARKEL ONAINDIA

Durango eta Iruñea giza kate bat gaz lotzea. Hori da Gure Esku Dago ekimenak erabakitze eskubidearen alde botatako erroka. Ekainaren 8an egingo dute mobilizazio berezia, eta herririk herri sendotzen dabil katea osatzeko dinamika. Berriz, Abadiño, Zornotza, Otxandio, Iurreta... Oraingoan, Durangon eta Elorrion ipini dira martxan. Martitzenean, hilaren 29an, izango da Elorrioko aurkezpena Arriolan, 19:00etan. Durangoa ordu berean baina hurrengo egunean, 30ean, Plateruena Kafe Antzokian. Iñaki Zarraoa Getxoko alkate ohiak eta Zelai

Nikolas EHUko irakasleak hartuko dute berba ekitaldi bietan.

50.000 lagun beharra

Azaroan eman zuten giza katearen berri, eta geroztik beharrean dihardute erabakitze eskubidearen aldeko mugimendukoek. Izan ere, erroka betetzeko partaidetza handia behar dute. Aurreikuspenen arabera, 50.000 lagun beharko dira gutxienez Durango eta Iruñea arteko 123 kilometroak eskurik esku lotzeko. Horregatik, informazioa emateaz gainera, giza katean izena emateko aukera ere eskaini dute Internetez zein kalean. Durangon eta Elorrion

ere gauza bera egingo dute hementik aurrera.

Dinamikaren sustatzaileek uste dute erabakitze eskubidea dela Euskal Herriko gatazka politikoaren iturburua, eta bere aldeko defentsa jarduerara demokratikoa dela. Horretarako, herritarrak aktibatu gura dituzte.

Iñaki Zarraoa Getxoko alkate ohiak eta Zelai Nikolas EHUko irakasleak hartuko dute berba

2,9 milioi euro eskualdeko gizarte-ekintza sustatzeko

> M.O.

Amankomunazgoak 2014rako aurrekontua onartu du EAJren eta PSE-EEren botoekin. 6,7 milioi euro bideratuko dituzte, eta horietatik 2,9 gizarte-ekintzarako izango dira. Orain arteko zerbitzuak mantenduko dituzte: larrialdi egoerak, etxeko laguntza eta droga-mendekotasun prebentzioa, adibidez. Oskar Zarrao Amankomunazgoko presidentek azaldu du enplegua eta promozio ekonomikoa ere erroka izango direla, eta enpresei, beharginei eta langabetuei laguntzen jarraituko dietela. Behargintzarako 489.000 euro erabiliko dituzte, eta Lanbide Ikastetxerako 792.000 euro.

Bilduk ezezkoa eman du. Endika Jaio Mañariko alkateak azaldu du euren proposamen bat ere ez dutela jaso gobernukoek. Esaterako, Berdintasun teknikiariaren postua sortzea beharrezkoa da Bilduren ustez. Orain urte bi egindako Berdintasun Plana "kutxa batean" dagoela kritikatu du. Bestalde, zabor bilketaren inguruko "azterketa serio" bat eskatu du Jaio. Bosgarren kontainerren eredu probatu aurretik atez ateko sistema alboratu egin zela esan du, eta uste du azterketa ez zela osatua izan. Herrien aportazioaren %44 zerbitzu horretarako dela nabarmendu du Jaio.

Euskaraz irakurtzea bultzatuko du Topaguneak

> M.O.

Euskaltzaleen Topaguneak euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina ipini zuen martxan eguaztenean. 42 herritan garatuko dute ekimena, eta horien artean Otxandio, Mañarian, Mallabian eta Atxonon ere bai. *Irakurri, gozatu eta oparitu* deitzen da kanpaina, eta esaldi horrek aurreratzen du funtzionamendua. Liburutegian euskarazko liburuak maileguan hartzen dituzten herritarrek edukiko dute parte hartzeko aukera. Irakurri ostean, bueltatzean, fitxa bat betetzeko eskatuko diete liburuaren balorazioa egin dezaten. Horren truke liburu denda beste liburu bat erosteko txartel bat jasoko dute, %25eko deskontuagaz. Leioari jarraituta, erositako liburu ingurukoren bati oparitzea gomendatu dute antolatzaileek.

Topagunearen, udalen eta euskara elkarten inizatibaz eta Durangoko Hitz dendaren laguntzagaz garatuko da kanpaina Durangaldean. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak ere bultzatu du kanpaina, eta horren eraginez iaz baino 18 herri gehiagora zabaldu da. Ekainaren 30era arte egongo da liburutegietan erosketak txartelak lortzeko aukera, eta uztailearen 5era arte erabili ahal izango dira liburuak erosteko.

Ibaizabal Taldeko kaleratuen mobilizazioak

Kalte-ordainak jasotzeari utzi diotela salatu dute



Calderería Abadiñok eta Ibaizabalek, eta Transformados Ibaizabalek osatzen dute taldea.

> JONE GUENETXEA

CCOOk Ibaizabal Taldean gertatu diren kaleratzeak kritikatu ditu. Dioenez, hilabeteen langile bi kaleratu dituzte. Azken urtean, berriz, hamar kaleratze izan direla gogora ekarri du. "Kostuak bajatu gura dituzte, lanaldiak eta soldatak murriztuta". Enpresak kaleratutakoekin adostutako kalte-ordainak ordaintzeari utzi diola gaineratu du sindikatuak. Sindikatuaren arabera, "langileekin bi hilabetezko zorra dute". CCOOk barietate elkarretaratzearekin deitzen du Durangoko egoitza nagusiaren aurrean, "egoera salatzeko".

> MALLABIA

Areitio auzoko Marixelen jaiak

> MAIALEN ZUAZUBIZKAR

Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean Mallabiko Areitio auzoko jaiak ospatuko dira. Asteazkenean, iluntzeko zortzietan, Donien Atxa jarri, kanpaiak jo eta txapliguak jaurtitzearekin batera ekingo diete 2014ko Marixelen jaiak. Gauean, berriz, auzo afaria egingo dute Goizeder jate-txean. Maiatzaren 1ean, goizeko

11:00etan meza egongo da eta, ondoren, Mallabiko trikitilariak giroa alaitu eta dantzariak saioa eskainiko dute. 12:30ean, gizon proba egongo da 500 kiloko harriarekin; Iñigo Aurrekoetxeak, Gorka de la Concepcionekek eta Aitor de la Concepcionekek hartuko dute parte. Azkenik, jaiak amaiera emateko, 17:30ean asto probak-izango dira Areitio. Parte-hartzaileak Zengoititaganek elkarrekin, Vitorio Celaya, Mayora elkarrekin eta Lupiortu izango dira.

A. Urreta
podóloga

Alina Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

R.P.S. 21406

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuena ren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERINAZTASUNAK**
- ASKOTATIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitzan **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BIRBU EMATEA**
- Guztatzeko **URBANIZAZIO KARGARRIK GABE**
- SALTOKIAK** erakinetik oso gertu
- Berdegunak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

2 log. 204.000 €+BEZ } filu aurrera
 3 log. 268.000 €+BEZ }



www.solvya.es Solvya@Guzuzoano



946 46 20 41
www.sukia.com



sukia Zure etxeari zozkete
Estás en tu casa

> ZORNOTZA

Beharrizana dutenei laguntzeko jai solidarioa antolatu dute

Janari bilketa egingo dute barikutik domekara bitartean; jaialdian jasotzen duten guztia Gurutze Gorriak beharrizana dutenen artean banatuko du



Hainbat tabernaren artean gauzatuko dute ekimena.

> JOSEBA DERTEANO

Gaurtik domekara beharreen dauden zornotzarrei laguntzea helburu duen jai solidarioa ospatuko dute, Luxury, Hogan's, Saltxa, Iruña eta Amets tabernekin antolatuta. Herritarrek janari iraunkorra utzi ahal izango dute tabernetan egokitutako edukiontzietan. Ondoren, janari guztia Durangaldeko Gurutze Gorriak jasoko du, eta udaleko Ongizate Sailaren aholkulari-

tzagaz herrian beharrizan handiena dutenen artean banatuko du janaria. Jai solidarioko ekitaldiak Luxury taberna pareko plazan eta Andra Mari plazan izango dira. Gaur, 19:00etan txupinazoa jaurtiko dute eta, ondoren, kalejira egingo da; iluntzean, kontzertua eskainiko du Blanco y en botella Zornotzako taldeak Andra Mari plazan.

Bihar arratsaldean, berriz, Gurutze Gorriak erreanimazio

kardiobaskularra zelan egin irakatsiko du eta, horren ostean, Divercion's taldearen kontzertua izango da Andra Mari plazan.

Domekarako, aldiz, askotariko produktuen merkatua, tortilla txapelketa eta herri kirolen erakustaldia antolatu dituzte. Txapelketarako izenematea kilo bat janariren truke izango da. Tabernetan dohaintzan dirua emateko itsulapikoak ere ipiniko dituzte.

> BERRIZ

Gerediagara elkartasun irteera egingo dute

Parte hartzeko elikagai kilo bat eroan beharko da

> AMAIA UGALDE

Zapatu honetarako elkartasun irteera antolatu du Berrizko Udal Kontseiluak. Gerediagako juntetxera joango dira bisitan berriztarrek, martitzenean Lurraren Nazioarteko Eguna izan zela ospatzeko. Irteera berezia izango da, parte-hartzaile bakoitzak elikagai kilo bat eroan beharko duelako. Irteeran batutako janaria Elikagai Bankuko hartzaileak diren berriztarrentzat izango da. Ibilaldia 09:30ean hasiko da Olakueta plazan.

Momentu honetan Berrizko 28 familia daude elikagaien bankuko programan. Udaleko Ongizate Sailak kudeatzen du programa, eta Udal Kontseiluko Caritaseko boluntarioak dabil-

Irteeran batutako janaria Elikagai Bankuko hartzaileak diren berriztarrentzat izango da

tza banaketan lanean. Berrizko Udal Kontseiluak hogeita hamalau urte daramatza gizarte ongizatearen gainean lanean. Herriko hainbat elkarte eta norbanakok parte hartzen dute kontseiluan, eta baita atzeritiko etorritako herritarren kolektiboek ere.

Lurrari buruzko erakusketa

Bestalde, Kultur Etxean *Gure lurrari gure etorkizuna* izeneko erakusketa prestatu dute kontseiluko kideek. Maiatzaren 7ra arte ikusgai egingo da, martitzenetik barikura, 18:30etik 20:30era. Eredu agroindustrialak nekazaritza arloari eta gizarteari orokorrean zelan eragiten dion azaltzen du erakusketa horrek. Elikadura burujabetzak dakarren alternatibaz ere badihardu.

Betarraganeko urbanizazio berria aurkeztu dute

> J.D.

Orain 16 hilabete zelai, hesi eta dorretxo elektrikoak besterik ez zeuden tokian, gaur egun, Betarraganeko urbanizazioa dago. Bilakaera horren gaineko xehetasunak eman dituzte udal ordezkariak eta urbanizazioa diseinatzeko ardura izan dutenek. Gaur egun kooperatiba bidezko etxebizitza bloke bat dago eraikita (oraindik ez da inor bizi) eta etorkizunean eredu bereko beste eraikin bi daude aurreikusita ondoko zelai batean. Eremu horren bueltan hedatzen da urbanizazio berria. 24.600 metro karratuko eremuan, espaloiak, bidegorria, autoen sartu-irtenetarako bideak, lurperatutako zaborrontziak, umeentzako parkea eta gune berdeak eraiki dituzte. Guztira 4,5 milioiko inbertsioa eskatu du proiektu integralak.

Autoentzako sarbideei dago kienez, norabide bateko errete bategi inguratzen du urbanizazioa: goialdeko biribilgunetik sartzen da eta behealdetik irten. Konbenio kaletik zegoen sarre- ra, aldiz, piboteekin itxi, eta garajeen jabeek bakarrik erabili ahal izango dute.

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE

PP

**Txakurrak aske**

Gure udalerrian, Eusko Jaurlaritzaren araudiak agintzen duenaren kontra, maskoten jabeek ez dute esparrurik euren txakurrak aske paseatzeko. Animalientzako jolaserako eremu bat mugatzea da aukerarik onena, herritarrek eta maskotek elkarbizitza seguru eta egoki bat izan dezaten.

Txakurrek gutxiengo aisialdi bat behar dute; oinezkoek, berriz, animaliek lotuta eta kontrolatuta joan behar dutela eskatzeko eskubidea dute. Guztien esku-bideak bateratzeko modua txakurrak askatzeko eremu bat mugatzea da. Eta, esan bezala, hori araututa dago eta ohikoa da Euskadiko edozein hiritan eta herritan.

Durango ez du zertan salbuespena izan. Eta horretan arrazoia ematen diegu udaletxe aurrean manifestatu direnei eta sinadurak -5.000 atxikimendu- batu dituztenei. Euren helburua EAJren udal gobernuak eremu bat edo ordutegi bat prestatzea da, txakurrek korrika gustura egin dezaten, herritarrek gogaitu barik.

Eskaera zentzuzkoa da, legedira egokitutakoa, eta arazo bati erantzuna ematen dio; alabaina, arazo horri, momentuz, isunen eta zigorraren bidez baino ez dio erantzun udalak. Durangoko txakurren jabeen eskaera aintzat hartu behar dute udalak eta EAJK. Leku egoki eta apropos bat aurkitu behar da, seinaleztatu, eta horrela irtenbidea eman konponbide erraza duen arazo bati. Zentzuz joka dezagun.

**Erredakzioan itzulia*

ALBERDI HARATEGIA DURANGO

Askatasun etorbidea, 1 - Durango Tel.: 946 817 658

Bertako okela · Aurretiaz prestatutako janariak

2013ko irabazlea

> IZURTZA

Saihesbidea Plan Orokorretik atera behar izan dute

Hiri Antolamendurako Plan Orokorri aldaketak ezarri dizkio Lurralde Antolamendu Batzordeak



Herriguneko trafikoa desbideratuko luke saihesbideak.

> JOSEBA DERTEANO

Iaz udalbatzarrean behin-behinean onartu zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorri (HAPO) hainbat aldaketa ezarri dizkio Jaurilaritzako Lurralde Antolamendu Batzordeak. Aldaketa horiek barneratuta, berriro behin-behineko onarpena eman zioten martitzeneko udalbatzarrean Bilduren aldeko botoekin eta EA Jren abstentzioagaz.

Ezarritako aldaketen artean, herrigunetik trafikoa desbideratuko lukeen saihesbidea dago; proiektu hori, momentuz, kendu egin behar izan dute HAPOtik. Aldundiak dio proiektu hori ez dagoela jasota Lurraldekako Sektore Planean eta, ondorioz, Izurtzako HAPOn ere ezin daitekeela jaso. Beste aldaketa batzuk ere egin behar izan dizkiote pla-

nari. Esaterako, datozen zortzi urteetarako planak 90 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuen (Garauntzakoez gainera), baina kopuru hori 45era jaitsi behar izan dute. Pilotalekua herrigunetik ateratzeko asmoa ere kendu egin behar izan dute, momentuz. Orain, Plan Orokorri jendaurrean erakutsiko dute 45 egunez, eta alegazioak egiteko modua egongo da. Horiek jaso eta aztertu ondoren, gorago organoaren onospena jaso beharko du berriro eta, azkenik, udalbatzarrak behin betiko onarpena eman beharko dio.

Udalbatzarrean aipatu zuten, HAPOa etorkizunean moldagarria da eta, esaterako, Aldundiak saihesbidea bere planean barneratzen badu, ondoren berau planera gehitu daiteke.

> MAÑARIA

Olioa era egokian birziklatzeko deia egin du udalak

> M.O.

Mañarian olio batzeko kontainerra daukate, beste herri askotan lez, baina herritar batzuek ez dute ondo erabiltzen, eta horregatik abisua eman du udalak. Edukiontzia horretarako berenberegiz egindako pote batzuk erabili behar dira, eta udaletxean eskuratu ahal dira. Potea kontainerrean sartzean, kontainerak hutsik dagoen bat ematen du bueltan. Baina zenbaitek olio edozein botilatan edo potetan uzten du kontainerrearen kanpoaldean, eta bilketa zerbitzuek ez dituzte botila horiek eramaten. Beraz, udalari garbigunera eroteko lana ekartzen dio horrek.

> GARAI

Zaldai-Solabisker bidea Aldundiko diru-laguntzagaz konponduko dute

> M.O.

Otsailean lur-jausia gertatu zen Zaldaitik Solabiskerrera auzobidean, denboralearen eraginez. Lurra leku bitan mugitu zen, eta arbola batzuk ere jausi ziren. Errepide hori konpontzeko diru-laguntza eskatu zion udalak Bizkaiko Foru Aldundiari, eta onartu egin dio. 50.000 eurokoa izango da laguntza, aurrekontuaren %81, hain zuzen ere.

Obra udalbatzan onartu eta adjudikaziora aterako dute datozen asteetan.

> DURANGALDEA ASTEON

Mugarri Eguna ospatuko dute zapatuan, Durangon

MENDI IRTEERA > Alpino Tabira mendizale taldeak eta udalak antolatzen duten ibilaldia goizeko 08:00etan hasiko da Andra Marin. Urtero legez, Durangoko mugak zehazten dituzten mugarrak bisitatuko dituzte, eta aitzakia horregaz mendi ibilaldia egingo dute. Bost orduko iraupena edukiko duela aurreikusi dute. Andra Maritik hasita Santa Luziara joko dute lehenengo. Gero, Axmokildik, Gibelatik eta Basobaltzetik igaroko dira.

Berrizen Espainiako bandera ipini dute eta Abadiñon ipintzean dira

BANDERA > Espainiako Gobernuaren ordezkarietatik egindako eskaria beteta, Espainiako bandera ipini dute Berrizko udaletxean eta Abadiñokoan laster esekiko dute. Berrizen joan zen eguaztenean ipini zuten Espainiako bandera udaletxeko balkoian, Berrizko bandera, ikurrina eta Europako banderagaz batera. Bestetik, Jose Luis Navarro alkateak esan du Espainiakoagaz batera, Abadiñoko, Bizkaiko eta Europako banderak eta ikurrina ipiniko dituela Abadiñoko Udalak. Orain arte ez da banderarik egin Abadiñoko udaletxeko balkoitik zintzilik.

Maiatzaren 1erako mobilizazioak iragarri ditu LAB sindikatuak

LAN ARLOA > Langileen Nazioarteko Egunaren harira, LAB sindikatuak mobilizazioetara deitu du maiatzaren 1ean. Zornotzan (Lidleko aparkalekutik) eta Elorrioren (azoka txikiko aparkalekutik) kotxe karabanak irtengo dira datorren eguenean, goizeko 08:30ean. Ondoren, eguerdiko 12:00etan Durangoko udaletxe aurreko plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia egin dute.

100 zornotzar izan dira eskubide sozialen gutuneko eztabaidetan

ESKUBIDEEN GUTUNA > Bederatzi arlotan banatuta, eskubide sozialen egungo egoera aztertu dute ehun zornotzarrek, eskubide sozialen gutuna eztabaidatzeko batzarretan. Lurralde antolaketarako, osasunerako eta eskubide kulturalerako eskubideak landu dituzte, esaterako. Antolatzaileen berbetan, adostasun handia egon da eztabaidetan. Euskal Herriko hainbat herritan dago martxan gutun sozialen eztabaida.

> Iritzia**Zorionak Intxorta**

Egoerak nabarmen aldatu duen arren, duela 25 urte zenuen izaera berberari eutsi diozulako. Elorrioren ezinbesteko eragileak zarelako. Lan bolondresaren apologia eginez, astialdi hezitzailean zein balioen hezkuntzan oinarritzen zarelako. Itzela zara Intxorta!

Gure herriak premiazkoa duen etorkizuneko jendarte laiko, kritikiko, sortzaile eta parte-hartzailearen alde sutsuki lan egiten duzulako. Elkarlana eta konpromisoa uztartzea zer den egunerokotasunean erakusten diguzulako.

Euskarazko aisialdi eredu baten aldeko lana jorratzeaz gain, inguruarekiko eta ingurunearekiko harremanak sustatzen dituzulako, Herriaz eta ereduaz ari

garelako. Beste mundu bat posible izango bada, zu bezalako talde eta eragileei esker izango da, edo ez da izango.

Elkartasuna, aniztasuna, aberastasuna, alaitasuna. Tasun franko biltzen dituzu zure baitan, eta *keriarik* bat ere ez!

Zorionak eta mila esker Intxorta maite, eta mila esker, batez ere, begirale taldea osatzen duzuen guztioi. Meritu ikaragarria zuena, txapela kentzeko moduko! Urtean zapaturo, neguan aterpetxean eta udan kanpamentuetan ehundik gora haur eta gaztetxoren aisiari haize freskoa emateagatik. Umeak irrikan dira jada, udalekuen garaia noiz iritsiko. Eta gurasook ere bai!

Maite zaituztegu!

Eskerrik asko kirol asteagatik

Elorrioko Udalak eta kirol taldeek antolatutako kirol astea primeran dago, eskerrik asko benetan.

Herrian geratzen diren umeek entreniduta egoteko aukera dute, lagun berriak eginez eta kirola praktikatuz.

Eta zer esanik ez dago ni ama moduan, umeak pozik ikusita, lasaiago nagoela.

Orduetgia eta antolatzen diren ekin-tzak egokiak direla uste dut.

Zergatik ez zoriondu ondo egindako gauzak?

Leire Arteaga (Elorrio)



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

AAlderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (farteak barne).

➤ Berbaz

Elena Laka | Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria |

“Horrenbeste indar metatzen duen mugimendu gutxi daude”



➤ GOIENA

Elena Laka da Euskaltzaleen Topaguneko, hau da, euskara elkarten federazioko lehendakaria. Jaiotzez eibartarra den eta Bergaran bizi den abokatua Eibarko ‘...eta kitto!’ euskara elkarteko kide da; bost urtean Topaguneko zuzendaritzako kide ere izan da, eta aski ezaguna da, ‘Goiena’-ko eta ETBko kolaboratzaile ere badelako.

Zelan hartu duzu izendapena?

Pozik, ilusioz, eta ohore moduan ere bai. Baina oso hunkigarriak eta ikaragarriak izan dira kanpotik jaso ditudan adierazpenak, babes mezuak, zorionak... Aurretik esan izan balidate, ez nuke sinetsiko, baina leku guztietatik ari zaizkit horrelakoak iristen, eta erabat eskertzekoa da. Baina, aldi berean, horrek ardura pixka

bat ere ematen du: zelako itxaropenak sortzen diren eta zer egin ahalko dugun... Baina hasteko, pozik.

Zuzendaritzako kide izan zara. Orain zure zereginak asko aldatuko dira?

Bai, izan ere, bi urteko etena izan dut zuzendaritzako kide moduan. Orain lehendakari moduan bueltatuko naiz eta ardurak bestelakoak dira, eta egitekoak ere bai. Baina asko errazten du lehenago egon izanak, eta etxearen ezagutza edukitzeak.

Norantz doa Topagunea?

Lau urteotan hausnarketa prozesu oso inportantea egin dugu, bidea nondik joango den, zer egin nahi dugun, zer izan nahi dugun eta zertarako gauden. Hori kongresuetan adostasun handiz onartu

da. Helburu nagusia da euskaldunentzako espazioak irabaztea. Euskal hiztunen komunitatea indartu nahi dugu, sendotu eta zabaldu, eta horretarako bideak ipini. Helburua da jendeak geroago eta espazio eta toki gehiago izan ditzala euskaraz bizi ahal izateko. Eta euskaraz bizitze hori Euskal Herrian gauza normala izan dadila. Bitartean zer prozesu segituko dugun horretarako? Gure bidea da gizartean adostasun handia lortzea, hortik aurrera egiteko, eta irabazita ez ditugun espazio horietara ere iritsi ahal izateko. Elkarlanean dihardugu euskalgintzako gainerako erakunde askorekin, uste dut asko dugula eskaintzeko. Erakunde publikoekin ere elkarlanean dihardugu. Uste dut hor ere asko dugula emateko. Solaskidetzak EAEn ona da, Nafarroan ez da horren ona, baina asko zabaldu da Tokikomekin,

hedabideekin... eta uste dut baditugula baliabideak, eta Topagunea oso indartsu dagoela horri guztiari aurre egiteko.

Zapatuko batzarrean orain arteko ibilbidearen berri ere eman zen; zelan egin da indartsu Topagunea?

Elkarteek topaguneari eskatzen zioten zuzendaritza, lidergoa, zentralitatea euskalgintzan... Hori eskuratzen gabiltza, eta gaur egun bagara nor, solaskide moduan aitortuta gaude edozein tokitan, eta egungo gizartean Topagunea kontuan hartzeko erakunde indartsua da.

“

Euskal hiztunen komunitatea indartu, sendotu eta zabaldu nahi dugu

Kide kopurua ere indartsua da.

Bai. 93 bazkide gara, elkarteak. Ia 20.000 herritar ditugu elkarteetan. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan banatuta daude elkarteak; Iparraldearekin ere bagabiltza lanean, eta, beharbada, epe laburrean bertako elkarteak ere izango dira gure kide. Uste dut mugimendu gutxi daudela Euskal Herri mailan horrenbeste jende, elkarte eta indar hori metatzen dituztenak, eta indar hori aprobetxatu egin beharra dago gure helburuetarako.

Topaguneak zer baliabide ditu bere asmoei aurre egin ahal izateko?

25 langile inguruko taldea da, eta 1.400.000 euroko aurrekontua du. Murriztu egin da aurreko urteetatik, 2013a oso urte gogorra izan delako, bereziki, herrigintzan dabilzan erakundeentzat. Hala ere, Topaguneak oso ondo jakin du baliabideak kudeatzen, funts propioak ditu eta %60an autofinantzaketatik lortzen ditu baliabide horiek. Eta inpaktu ekonomikoari dagokionez, uste dut lanpostuetan eta gainerako zerbitzuetan, eta baita industria moduan ere, oso kontuan hartzekoa dela.

Jaurlaritzak V. mapa soziolinguistikoa aurkeztu du asteon. Zertan eragin dezake Topaguneak emaitzetan?


Euskaltzaleen mugimenduak gizarteari eskaintzeko duena inoiz baino beharrezkoagoa da mapa soziolinguistikoa emaitzak ikusi ondoren. Hain zuzen, mapa horretatik ondorioztatzen da administrazioaren garaia dela herria euskalduntzeko. Bi eragileak, administrazioa eta herri mugimendua (Topagunea), elkarrekin aritu beharko dira euskara formalak ez diren esparruetara eramateko, euskal hiztunengan euskararekiko atxikimendua eramateko. Orain arteko jardunak erakutsi digu euskaraz jarduten duen hizkuntzaren aldeko mugimenduren bat dagoen inguruetan hizkuntzaren presentzia alor gehiagotara zabaldu dela, euskal hiztunen komunitatea trinkotu egin dela. Oso une egokia da euskara elkarten mugimenduak euskal gizartean modu antolatuan eragin dezan.

JAIAK!

San Prudentzio
| TRAÑA-MATIENA / ABADIÑO

SAN PRUDENTZIO

JAIAK
2014



*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu
abadiñar guztioil!*

EROSKI

TERRAZAK ETA LORATEGIAK
MOMENTU PAREGABEAK



EROSKI

Abadiño zurekin

SAN PRUDENTZIO JAIEN EGITARRAUA

APIRILAK 26 Zapatua, mozorro eta kuadrillen eguna

13:00 Txupinazoa txosnagunean, Abadiño Xake Taldearen eskutik. Txosna Batzordeak antolatua.

14:00 Herri bazkaria Traña plazan, Traña-Matienako Jai Batzordeak antolatua.

17:00 Kuadrillen arteko jokoak Traña plazan. Txosna Batzordeak antolatua.

19:00 Mozorro kalejira Turutarra fanfarreak alaituta, Trañabarren etorbidean.

23:00 Mozorro txapelketaren sari banaketa Traña plazan.

23:00 Jaialdia Traña plazan:
· **Izerdi Gorria**

APIRILAK 27 Domeka, Donien Atxa Eguna

09:00 Aretoko-futbol partiduak Traña-Matienako kiroldegian. Traña-Matiena Herri Eskolako IGEk antolatua.

10:00 Saskibalo partiduak pilotalekuan. Traña-Matiena Herri Eskolako IGEk antolatua.

12:00 Laubideta kalean **pintxo dastaketa:** Ingalaterrako gastronomia. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatua.

16:00 Aretoko-futbol partiduak Traña-Matienako kiroldegian. Traña-Matiena Herri Eskolako IGEk antolatua.

17:00 San Prudentzio pilota txapelketaren finalaurrekoak, Atxarte pilota eskolak antolatua.

18:00 Kuadrilla guztien bilera Trañako zubian Donien Atxa ekartzeko.

20:00 Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, **Sugarri fanfarrea**, Iluntze taldearen dantza saioa eta urteko lagun ospetsuena saritzeko ekitaldia.

APIRILAK 28 Astelehena, San Prudentzio eguna, Umeen Eguna

11:00 Meza Nagusia.

11:00 Umeentzako jolastokia Traña plazan. Euria bada, pilotalekuan. Traña-Matiena Herri Eskolako IGEk antolatua.

16:00 Umeentzako jolastokia Traña plazan. Euria bada, pilotalekuan.

18:30 Umeentzako DJa Traña plazan.

19:00 Txokolatada Traña plazan. Geu Be elkarteak antolatua.

APIRILAK 30 Eguaztena

22:00 Bertso saioa Errota kultur etxean. Bertsolariak:

Unai Iturriaga

Mañukorta

Jon Maia

Alaia Martin

Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Gogaikarri bertso eskolak antolatua. Gonbita beharko da sartzeko eta gonbitak eskura egongo dira apirilaren 22tik aurrera Errota kultur etxean (sarrera bi pertsona bakoitzeko, goitik jota).

22:00 Jaialdia Trañabarren etorbidean:

· **Onda Futura**

23:00 DJ Bull Traña plazan. Txosna Batzordeak antolatua.

MAIATZAK 1 Eguena

Goizean Geu Be taldeak txahal bat erreko dau Traña plazan.

10:00 Nekazaritza azoka Traña plazan.

11:30 Sagardoaren jai Traña plazan.

12:00 Herri kirolak Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

13:00 Iluntze taldearen dantza ekitaldia. Euria bada, pilotalekuan.

14:00 Jubilatuen bazkaria, Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatua.

17:00 San Prudentzio pilota txapelketaren finala, Atxarte pilota eskolak antolatua.

17:00 Jaialdia Traña plazan
Lotxo taldearekin.

22:30 Su artifizialak. Euria edo haizea bada, atzeratu egingo da.

MAIATZAK 2 Barikua

16:00 Mus txapelketa pilotalekuan. Zalduerreka auzolan elkarteak antolatua.

17:30 Umeentzako tailerrak, grafiti tailerra eta plastikozko motortxoer lasterketa Traña plazan (bakoitzak bere motorra ekarri behar du). Txosna Batzordeak antolatua.

20:00 Frontenis txapelketaren finala.

22:00 Antzerkia Errota kultur etxean: **7 aulki.** (Et@rte antzerki taldea) Gonbita beharko da sartzeko eta gonbitak eskura egongo dira apirilaren 22tik aurrera Errota kultur etxean (gehienez bi sarrera pertsonako).

23:00 Jaialdia Traña plazan:
· **Babel Covers**

MAIATZAK 3 Zapatua

12:00 Paella txapelketa merkatu plazan.

16:00 Ugasixo txapelketa merkatu plazan.

17:30 Tortilla txapelketa merkatu plazan.

18:30 Rock kalejira. Txosna Batzordeak antolatua.

23:00 Kontzertua Traña plazan:
· **Enkore**
· **Vendetta**

MAIATZAK 4 Domeka

10:00 Txanbolin taldeko txistulariekin **kalejira.**

10:30 Umeentzako quad-ak Traña plazan. Endu-Quad Abadiño Motor Club taldeak antolatua.

12:00 Xake erakusketa Pinoko plazan, Abadiño xake taldeak antolatua.

12:00 Kontzertua elizan, Jaizale Durangaldeko txistularien elkartearekin eta **Done Zezili** abesbatzarekin. **Jaizale** eta **Musikariak** taldeak antolatua.

13:00 Perretxiko pintxoaren dastaketa Pinoko plazan, Geredixa mikologi elkarteak antolatua.

16:00 Tute txapelketa pilotalekuan. Barnebide jabetxeak antolatua.

17:00 Aretoko-futbol txapelketaren finala Traña-Matienako kiroldegian.

20:00 Donien Atxa kentzea. Ustekabe txarangak alaituta.

Plazan ipiniko dituzte txosnak, egunez ere jai gune izateko

Traña plazan egongo dira, aurten, San Prudentzio jaietako txosnak; aldaketa horregaz txosnagunea jaietan gehiago integratzea gura du Txosna Batzordeak

> ITSASO ESTEBAN

Txosna Batzordearen hausnarketaren ondorioa da Traña-Matienako San Prudentzioetako txosnen kokagunearen aurtengo aldaketa: Traña plazan, agertokiaren inguruan ipini dituzte aurten txosnak. Plazan ipinita, "egunez ere jaiaren parte izatea" bilatzen du Txosna Batzordeak.

Gaueko jai giroa bilatzen dutenentzat ez ezik, egunez jai gunea hurreratu gura dutenentzat ere zabalduko dituzte txosnak kokagune berrian, txosnagunea adin guztietako herritarrentzako elkargune izateko; terraza bat ipiniko dute jendea eroso egon dadin, eta umeei zuzenduriko


ekintzak ere antolatuko dituzte, gainera. Maiatzaren 2an, esaterako, umeentzako jarduerak eskainiko dituzte txosnagunean, 17:30ean hasita: grafiti tailerra, eta motortxo lasterketa.

Umeei zuzenduriko ekintzak ere izango dira, aurten, Traña plazako txosnagunean

Bihar zabalduko dute txosnagunea, eta jaien hasiera eta irekiera hori sinbolizatzen, txu-

pinazoa botako dute, 13:00etan. Lehenengo aldia da San Prudentzio jaietan txupinazoa botako dutena, eta Abadiño Xake Taldea aukeratu du Txosna Batzordeak txosnagunetik bertatik jaiei hasiera eman diezaion. Talde horretako kideek urte osoan Abadiñon egiten duten lana eskertu gura die batzordeak horrela.

Jaiegunetan, egun osoan gura du Txosna Batzordeak jai giroa bultzatu, eta era guztietako ekitaldiak antolatu ditu. Txupinazoaren ostean, esaterako, kuadrillen arteko jokoak egingo dituzte. Bestalde, apirilaren 30ean, DJ Bull ariko da Traña plazan txosnagunera batzen direnentzat musika ipintzen.



Bihar, 13:00etan zabalduko dute txosnagunea.



Nafarroako Vendetta taldearen doinuek girotuko dituzte sanprudentzioak.

Vendettaren ska doinuak eta Enkore bilbotarren rock kantak entzungai

Txosna Batzordeak antolatuta, maiatzaren 3an, 18:30ean rock kalejira izango da lehenengo, eta 23:00etatik aurrera Enkore eta Vendetta taldeak ariko dira

> I.E.

Maiatzaren 3an, Traña plazan izango da San Prudentzio jaietako musika jaialdia. Txosna Batzordeak antolatuta, 18:30ean rock kalejira izango da lehenengo eta gauean, 23:00etatik aurrera, Enkore laukote bilbotarra eta *Tour for freedom* biran diharduen Vendetta talde nafarra ariko dira.

Rock musika egiten duen taldea da Enkore: 2009. urtean Bilboko Errekalde auzoan sorturiko laukotea. 2012ko Gaztea Maketa Lehiaketan epaimahaiaren saria irabazi zuen, eta beste

hainbat lehiaketatan ere saritua izan da. Urteotan 70 kontzertu baino gehiago eskaini ditu Enkorek. *Kanala* izeneko bigarren diskoa kaleratu berri du, eta lan horretarako sorturiko kantak joko ditu Abadiñon, zuzenean.

Enkore taldea sortu zen urte berean, 2009an, lehenago Skalarriak taldean aritutako hainbat musikariek sorturiko taldea da Vendetta, eta ska doinu dantzagarriak ekarriko ditu Traña-Matienako sanprudentzioetara. Hamarkada bat baino gehiago daramate taldeko musikariek ska musika egiten, eta 2009. eta

2010. urteetan nazioartean ehun kontzertu baino gehiago eskaini zituzten. Laugarren diskoa izango dutena prestatzen dabilta, besteak beste, orain.

Bertso saioa

Bestalde, San Prudentzio jaietan faltatu ezin den hitzordua da apirilaren 30eko Errota kultur etxekoa: Gogaikarri bertso eskolak antolaturiko bertso saioa. Unai Iturriaga, Mañukorta, Jon Maia eta Alaia Martin bertsolariak ariko dira saio horretan Maite Berriozabalek emandako gaien inguruan kantuan.

Garage Miguel

- GARBIA
- TAPIZERIA
- MEKANIKA
- GURPILAK

Azuñe, 10 A
1. Pabellon
48220 Matiena
Tel.: 946 819 181
Fax: 946 218 284

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

PINILLA
BASERRIKO OKELA

Tel.: 946 815 127
Trañabarren, 29 · MATIENA - ABADIÑO

Gure Kide
Albaitaritza klinika

Murueta auzoa, 1
48220 MATIENA (Abadiño)
Tel.: 946 201 621
Larrialdia: 655 881 422
www.gurekide.es

Medikuntza - Análisi klinikoa - Ekografia - Erradiologia
Kirurgia - Ospitalizazioa - Ile-apainketa - Osagarriak

Cafetería Oxford
MATIENA-ABADIÑO

ondo pasa jaietan!

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 818 884 (Bizkaia)

SERRATU, S.L
GALDARAGINTZA
ETA ITXIERAK

25 ANIVERSARIO

Gure bezeroen zerbitzua

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia
Tel.: 946 201 837 - Fax: 946 818 635
serratu@serratu.com

IBON MARTIN | Abadiño Xake Taldeko idazkaria

“Xakelariak motibatuta dabilta, eta emaitza onak lortzen ari gara”

Abadiño Xake Taldearen izenean txosnetako egitarauari hasiera emango dion suziria piztuko du zapatuan, 13:00etan



Ibon Martin, Eibarko lan arloko unibertsitatean.

Abadiño Xake Taldeko idazkaria, jokalaria eta entrenatzailea da Ibon Martin. Euskadiko eta Bizkaiko gazte mailetako selezioekin ere ibiltzen da entrenatzaile. Berak piztuko du txosnetako egitarauari hasiera emango dion jaietako txupinazoa.

Noiz esan zizueten txosnetako txupinazoa botako zenuela?

Orain astebete gutxi gorabehera esan zigun txosna batzordeak. Ilusioa egiten du. Horrelako eskaintza batek esan nahi du ibilbide ona ekarri dugula eta jendearen arreta erakarri dugula.

Nork piztuko du suziria?

Klubean, esaterako, Muntzaraz-

ko eta Durangoko xakelariak ere badabilta, baina Traña-Matienako norbaitek piztea zen asmoa. Alberto Delgado presidentea kanpotik dabilenez niri eskaini zidaten. Egun horretan Eibarren egongo naiz gaztetxoan Euskal Herriko Txapelketako antolaketa lanetan, baina pare bat ordu libre hartuko ditut eta txupinazoa piztera joango naiz, azken orduko trabarik ez bada. Joan, piztu eta berriro Eibarera.

Abadiño Xake Klubetik antolatzen duzue ekitaldirik jaietan?

Maiatzaren 4an eskolarteko torneo bat antolatuko dugu. Matienako eta Zelaletako ikastetxee-

kin batera Durangoko hainbat parte hartuko dute: Never's-ek, Zabalarrak, Landakok eta Jesuitak ikastetxeak. 7 eta 12 urte arteko 40 gazte ariko dira. Aurreko urteetan aldibereko txapelketak (jokalaria bat hainbaten aurka txandaka) eta txapelketaitsuak (bi xakelarietako bat begiak estalita) egin izan ditugu, baina aurten aldatzea erabaki dugu.

Zein da Abadiño xake taldearen gaur egungo egoera?

Nahiko egoera ona bizi dugu. Kopuru aldetik 30 jokalaritik gora ditugu. Gainera, xakelariak nahiko motibatuta dabilta, eta emaitza onak lortzen ari gara.

Aurtengo ligetara bost talde aurkeztu dira, eta hiruk igoera lortu dute eta gainerako biak atarian geratu dira. Buruz buruko txapelketei dagokienez, Alberto Garcia Bizkaiko txapelkun geratu da kadeteetan eta Jon Lagos bigarren. Bizkaiko gazte mailan Maitane Varas izan da emakumerik onena. Hirurak durangarrak dira, baina Abadiñoekin dabilta. Durangoko Larrasolotaren eta Abadiñoaren artean gertatzen dena da klub bietan jokatzen dugun jokalaria asko bazkideak ere bagarela klub bietan.

Zelan dago klub biak batu eta talde komunak ateratzeko asmoa?

“

Arratsalde osoko partidak jokatzea gero eta aspergarriago egiten zait”

Ez da erraza, gauza asko bateratu behar dira: fitxak erdibana ordaindu edo ez erabaki behar da, eta hemendik urte batzuetara banatzea erabakitzen badugu, taldeekin zer egin ere pentsatu behar da, adibidez. Gainera, kide guztiak ez daude batzearen alde. Erabakia hartu aurretik berba egin behar da eta adostasunak lortu behar dira.

Pertsonalki zelan bizi dituzu San Prudentzio jaiak?

Urteak joan ahala gero eta gutxiago doa nire jaizaletasuna. Gazteagotan gustura irteten zara parrandan, baina adinean aurrera joan ahala ez zara hainbeste animatzen, edo lagunek familia dute, edo lana... Desberdina da. Gustuko musika talderen bat badator, kontzertuetara joatea da orain gehien erakartzen nauena.

Zelan bizi duzu orain xakea?

Saso batean torneoak eta txapelketak jokatzea zen gehien gustatzen zitzaidana, baina apurka etapa hori atzean geratzen ari da, eta azken urteetan, batez ere, entrenatzaile lanetan zentratuta nabil, baina antolakuntza lanetan ere bai. Orain nahiago dut xakea irakatsi lehiatu baino. Txapelketak gustatzen zaizkit, baina, batez ere, partida laburrekoak; arratsalde osoa irauten duten partidak jokatzea gero eta aspergarriago egiten zait.




Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak) - Freno-pastillak - Amortiguadoreak






Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)
(Hiper Eroskiaren ondoan)
Tel.: 94 623 25 20 - Fax: 94 620 36 22
www.neumaticosetxebarría.com





Zaragozako Circle Of Trust taldeko sei kidek dihardute ikuskizunean dantzan.

‘Divenire’: Logela Multimediaren irudiek eta soinuek lagunduriko dantza, Durangaldean

Logela Multimediako elorriarren eta Circle Of Trust taldeko break dantzarien hirugarren kolaborazioa

> ITSASO ESTEBAN

Maiatzaren 1ean, 20:00etan, Durangoko San Agustin kultur-gunean, eta, hurrengo egunean,

22:00etan, Elorrioko Arriolan eskainiko dute Logela Multimedia eta Circle Of Trust taldeek *Divenire* dantza ikuskizuna.

Elorrioko Logela Multimedia eta Zaragozako Circle Of Trust taldearen elkarlanetik sortutako hirugarren ikuskizuna da

Divenire. Ekoizpen honetarako, gainera, lehenengoz, Jordi Vilaseca koreografoaren zuzendaritza artistikoagaz jardun dira

sorkuntza prozesuan. Logelako sortzaileen berbetan, “nabari da Vilasecaren ukitua azken emaitzan: batetik, ideiak gehiago ordenatu ditugu bere parte-hartzeari esker, eta, bestetik, garaikidetasun kutsu handiago eman diogu lan honi”. Lan honetan “heldutasuna irabazi” dutela azpimarratu du Logela Multimedia taldeko Imanol Garaizabalek: “Orain arte, gure lan egiteko era izan da ideia guztiak mahaia gainean ipini eta bi taldeen artean joatea josten ikuskizunaren gidoia. Kasu honetan Jordi egon da talde bien erdian gure ekarpenak ordenatzen”.

Kolaboraziotik eboluzioa

Elorrio, Zaragoza eta Bartzelona batzen dituen ekimena da *Divenire*. Sortzaileek asko baliatu dute Internet, distantziak laburtu eta elkarrekin sortzeko, baina Zaragozan zein Elorrioren ere elkartu dira sorkuntza prozesuan. Lantaldeari dantza garaikidearen ikuspuntua Vilaseca koreografoak eman dio, dantza urbanoarena Circle Of Trust taldeak, eta baliabide digitalak Logela Multimediak gehitu dizkio: Logelarena da planteamendu eszenografikoa, eta baita irudiak (errealistak, *motion graphic* teknikagaz zein hiru dimentsioko grafismoagaz egindakoak) eta girotzeko sortutako audioak ere.

IMANOL GARAIZABAL | Logela Multimedia taldeko kidea

“Parte-hartzaileon bizipenak eta momentuko egoerak dira ikuskizunaren ardatza”

Logela Multimedia taldeko Imanol Garaizabalek eta Peio Agirrek sorturikoak dira ‘Divenire’ ikuskizunean pantailan proiektatzen diren irudiak

Zelako harrera egin dio publikoak ‘Divenire’ ikuskizunari?

Oso ona. Izan ere, estetikari eta testuinguruari dagokienez, betiko *breakdance* ikuskizunetatik aldentu gara, eta publiko zabalagora ailegatzea ekarri du horrek: askotariko publikoa daukagu, eta kritika onak jaso ditugu. Zaragozan, Madrilen eta Guadalajaran eskaini genuen, eta urte hasieran Euskal Herrian hasi gara erakusten.

Badago ideien bat obra pentsatzen hasi zinetenetik transmititu nahi izan duzue?

Orain arteko gure kolaborazioetan (*Klonk* eta *Papiro...flexia* lanetan) beti hartu izan dugu gai bat edo testuinguru bat abia-

puntu gisa. Baina oraingoan parte-hartzaileon momentuko bizipenak eta egoerak dira ikuskizunaren ardatza. *Divenire* ikuskizunaren izenburua ere hortik dator: euskaraz *joan-etorria* esan nahi du. Esango nuke lan egiteko modu horretan nabari dela heldutasuna; bizitza aurrera doan heinean inozentzia galtzea. Puntu horretan gaude, eta *Divenire* hori erakusten du. Barrutik, bihotzetik ateratako ikuskizuna da.

Break dantzari lotuta entzuzera ohituta ez gauden musika ipini diozue ikuskizunari.

Hori da. Ikuskizuna break dantzaren eta dantza garaikidearen nahasketa bat da, eta au-

dioan nahasketa hori ikusten da. Dantza garaikidearen tempo dauka, klasikoa zein elektronikoa; bestalde, break dantzaren *beata* ere presente dago. Oso nahasketa polita da *Divenire* ikuskizuneko musikarena: musika klasikoa, rapa, *funkya* eta musika elektronikoa daude. Nahasketa kuriosoa eta oso eramangarria da.

Logela Multimedian orain arte erabili bako teknikarik baliatu duzue lan honetarako?

Ez, egia esan ez. Irudiak eta musikak sortzeko lan handia egin dugu, baina azken emaitzan ez dute pisurik handiena. Ikuskizun honetan oso orekatuta dago parte bakoitzaren pisua.



Lanpetuta zabilzate azken hilabeteetan Logela Multimediako kideak: Break On Stage jaialdia, ‘Barbantxo’ umeentzako ikuskizuna...

Bai. Lan asko egin dugu azken aldirian, horrela sortu delako. Azken urteetan Ingalaterran hainbat ikus-entzunezko lan ekoiztu ditugu, eta dantzariekin interakzioan egin dugun lan bat ere aurkeztu genuen urrian, han. Oraintsu Break On Stage eduki dugu, *Barbantxo* ere aurkeztu dugu... Eta *Divenire* orain. Errit-

moa apur bat gelditzea gura dugu orain, egindakoa ondo digeritzeko. Baina, egia esan, oso pozik gaude sortu ditugun ekoizpenek duten harreragaz.

Horren adibide da Break On Stage jaialdia.

Bai. Hiru mila ikusle etorri ziren, eta urte asko daukan jaialdia izanik ez da erraza jendea harritzen duen programazioa eskaintzea lortzea. Oso proposamen interesgarriak egon ziren, eta asko gozatu genuen.

> ERAKUSKETA

'Bi Andra Mariak' erakusketa ipini dute Museoko areto berrian

Santa Anako arkuko eta Tabirako San Pedroko Ama Birjinen figurak ikusgai

> ITSASO ESTEBAN

Durango Arte eta Historia Museoko areto nagusiaren ondoan atondu dute gela berria. Bertan paratu dute Aste Santuan ikusgai egon den *Durango-ko bi Andra Maria*. Alboratuak

eta berreskuratuak erakusketa. Areto berria inauguratzeko prestatu dute erakusketa, baina datozen asteetan ere ikusgai egongo da bertan.

Santa Ana plazako arkuko XVI. mendeko zurezko Ama

Birjina, eta Tabirako San Pedro inguruko landan zegoen XIV. mendeko harrizkoa ipini dituzte ikusgai Durango Arte eta Historia Museon.

Joseba Aizpurua Museoko arduradunak erakusketaren



Apirilaren 15ean inauguratu zuten Museoko erakusketa areto berria.

> INKESTA

Erabiltzaileek 8,56 puntu eman dizkiote liburutegiari

> I.E.

Udal Liburutegiaren zerbitzuari buruz egin duten inkestaren arabera, erabiltzaileek 10etik 8,56 puntuko balorazioa eman diote Durango liburutegiari. Udalak azaldu duenez, 2010. urtean egin zuten aurreko inkesta, eta 7,53ko puntuazioa jaso zuen liburutegiak; beraz, puntu bat baino gehiago igo da erabiltzaileek liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuei emandako nota.

Informazioari, irisgarritasunari eta tratuari dagozkien esparruak dira erabiltzaileek gehien baloratzen dituztenak. Bestalde, jardueri, funtsei eta eraikinari dagozkien hobekuntzak abian jartzen dihardu udalak, inkesta-remaitzak aintzat hartuta.

> IKUSKIZUNA

Akrobaziak Liburuaren Nazioarteko Egunean

'Irakurtzen...' ikuskizunaren emanaldiagaz ospatu zuten Iurretan Liburuaren Nazioarteko Eguna



Dantzari plazan eskaini zuen Shakti Olaizolak emanaldia.

aurkezpenean azpimarratu zuenez, "orain arte museoko biltegian gordeta zeuden Andra Marien figura originalak ikusi ahal izatea aukera paregabea da". Arte eta Historia Museoko erakusketan, gainera, piezen historia ere ezagutu daiteke. Izan ere, mendetan gorabehera asko igaro dituzte Andra Mariaren figura bi horiek: gaur egun Santa Anan eta Tabiran daude-nak horien erreplikak dira.

Jon Kepa Garro zinegotziak aurkezpenean esan duenez, Durango Arte eta Historia Museoari "dinamismoa" emateko baliatuko dute areto berria: izan liteke artista baten lanaren ikuspegi zabalagoa emateko, edota aldi berean erakusketa bi erakutsi ahal izateko. Aizpurua gehitu duenez, "erabilera anitzekoa" izango da espazio berri hori.

J. Aizpurua: "Aukera paregabea da gordeta zeuden figura originalak ikusi ahal izatea"

GEURE DURANGALDEA

MIKEL ONANDIA

Artearen historialaria



Enrike Renteria

Aste batzuetatik hona *Anboto* Zornotzara ere heltzen dela eta, Zornotzatik kanpora hain ezaguna ez den Enrike Renteria (Zornotza, 1900-1982) margolariari buruz hitz batzuk idaztea otu zait.

Formakuntza autodidakta, nerabegarotik pinturarako bokaziozko zaletasun nabarmena erakutsita, bizitza osoan margotzeari utzi ez zion Enrike Renteria XX. mendean eskualdean izan dugun artista esanguratsuenetakoa dugu, duda barik. Euskal Artisten Elkarte ospetsuko kide, 30eko hamarkadan izaera kostunbrista eta kutsu narratiboko pintura modua gauzatu zuen, bere inguru hurbilenari zuzenean lotutako paisaia naturalak edo barne eszena desberdinak landuta. Neurrri batean bere lagun Ucelay bermeotarraren eraginpean kromatismo epel eta tonu kontraste aipagarri eta aberatsek ezaugarritzen dute bere lana, bereziki giro atmosferikoak sortzen trebea izaki.

Inpresionismoaren ildoan, euskal paisaiaren tradizioan -Regoyos, Guiard, Amárica- erabat txertaturik, Renteria ibilbidea gerrak baldintzatu zuen zuzenean, eta 50eko hamarkadatik aurrera beretzat jardun zuen, batez ere, baina sekula aire librean margotzera joateari utzi gabe, 70etan ostera ere Bilbon erakusketa indibidualak antolatu eta kritikak berreskuratu zuen arte. Bere eguneroko paisaia bitala margotu zuen Renteria lana zuzenean ikustea erraza ez bada ere -obra gehientsuenak esku pribatuetan baitaude-, Zornotzako udalaren web orrian hautaketa politaz goza daiteke: www.amorebieta-etxano.net/ezagutu/semi-printzipalak.

Logela multimendia & Circle of trust

DIVENIRE

Maiatzaren 1ean - 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGORIO UDLA

PLATERUENA Durango Kafe Antzokia www.plateruena.net

Munduko Poesia Kaiarak APIRILAK 25 - 19:00etan DOAN MUNDUKO POESIA KAIERAK AURKEZPEN IRAKURRALDIA

APIRILAK 26 - 22:30ean 6 euro COBRA + ERASO! MUSIKA KONTZERTUA

APIRILAK 27 - 18:00etan DOAN AIKO ERROMERIA ERROMERIA

Eguneko menua astelohenetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu

deitu!

946 217 902

Kirola

Kepa Amantegi | Durango, 15 urte | Auto gidaria |



“Managerrak esaten dit pozoia eta gaitasunak ikusten dizkidala”

Maiatzean Montmeloko zirkuituan debuta egingo du Kepa Amantegi 15 urteko pilotu durangarrak

> MARKEL ONAINDIA

Klasetik irten eta bizikletaz airean etorri da elkarrizketara Kepa Amantegi. Abiadurazalea da txikitatik. 15 urte baino ez eta auto lasterketarako gidari izateko prestatzen dabil. Autoa egokitu, entrenatu... Maiatzean egingo du debuta Bartzelonan.

Montmelon egingo duzu debuta maiatzaren 23an. Zer txapelketa izango da?

Espainiako Erresistentzia Kopan hasiko gara. 1 Formularen antzekoa da: zirkuituan, baina autoekin. Ordu biko proba da. Ondo egiten saiatuko gara. Kataluniako 1 Formulako zirkuitua da berez.

Data arraroa da denboraldiari ekiteko. Zergatik?

16 urteagaz hasi ahal dugu lehiatzen, eta maiatzaren 12an egiten ditut urteak. Lehen proba izango da, eta bost dira guztira. Motorlanden, Xerezan, Chesten eta Jaraman izango dira besteak.

Prozesu honek ardurak hartzen ere lagunduko dizu.

Aitak esan zidan bizitzarako lagungarri izan daitekeela, ez bakarrik kotxeen arlorako. Carlos Dorado managerrak asko laguntzen dit. Beragaz babesleak topatzera joaten naiz.

“

Gazteena izango naiz, eta, beharbada, bakarria 18 urte baino gutxiagorekin”

Erresistentzia lasterketa da; aipatu duzunaren arabera ordu biko.

Montmelon bakarrik da ordu biko. Besteetan 50 minutuko bi lasterketa dira. Askok pilotu bigaz egiten dute; ni, nahiz eta nekatu eta astiroago joan, bakarrik joango naiz, ahalik eta kilometro gehien egiteko. Gazteena izango naiz, eta, beharbada, hemezortzi urte baino gutxiago daukan bakarria. Ordu bi direnez, atzetik pasatzen etorriko dira. Ea arin doan baten atzetik 400 bat metro egin eta bihurtun batean ikasten dudana beregandik zer egiten duen nik baino hobeto.

Autoak zer berezitasun dauka? Renault Clio bat da, kalekoen modukoa. Motorra berdina da, baina martxen kaxa ez da H estilokoa, sekuentziala da. Kentzeko aurrera eta sartzeko atzera.

Bizkorragoa da, 1 Formulako modukoa, baina palankagaz. Gero, beste gauza batzuk badauzka: iraultzea saihesteko barrak, adibidez.

Autoa erabiltzeko aukera gutxi edukita, baduzu ikasteko beste modurik?

Ordenagailuan askotan ikusten ditut pilotu onenen *onboard*-ak [bideoak]. Montmelokoak, adibidez. Nondik joaten diren, zer trazadura egiten duten, zer mar-tzetan joaten diren... Hori guztia ikasteko.

Ikastea duzu helburu. Hurrengo urteei begira zer?

Autoaren lehengo jabea, Roberto Blach, kartingetik zetorren. Ni ere ibili naiz kart ibilgailuetan, baina ez konpetitzen. Galiziako txapelduna zen. Hemezortzi urtera arte zirkuituan egon zen lehiatzen, eta gero Espainiako Rally Txapelketara joan zen. Nire ideia hori da. Bera lehenengo urtean ikastera joan zen, bigarrean bosgarren-seigarren egiten saiatzera, eta gero Espainiako Txapelketara.

Zelako pilotua zara?

Ez dakit. Managerrak esaten dit pozoia eta gaitasunak ikusten dizkidala. Hori landu behar dela esan dit. Lehiatzen hastean, ez

desanimatzeko esan dit, gaztea naizelako eta urteak dauzkadalako aurretik.

Noiz eta zelan zaletu zinen automobilismora?

Santi Artetxe pilotu durangarra nire aitaren laguna da. Txikitan beragaz Euskadiko Txapelketako rallyetara joaten ginen. Ni, sei urteagaz, autoekin haluzinatuta nengo. Gero aitak kart bat erosi zidan. Astebururo ibiltzen ginen; Euskal Herriko zirkuitu guztiak egin ditugu. Baina inoiz ez dut lehiaketetan parte hartu. Mañariko harrobietan ere ibili izan gara. Egundean batean Carlosek nire aitari esan zion animatzeko, eta hortik dator dena.

Zeintzuk izan dira zure erreferenteak?

Beti izan naiz Schumacherren aldekoa, eta motoetan Rossiren jarraitzaile itzela naiz. Baina motoak ez zaizkit gustatzen, arriskutsuak iruditzen zaizkit-eta. Bestela, gaur egun, Roberto Blach da nire erreferentea.

Igor Urien abadiñar gaztea ere maila onean dabil F3n.

Nire ustez, pilotu oso ona da, eta espero dut urrun heltzea. Horrela, Euskal Herriko maila goian ipiniko du.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Real Unión
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Gurutzeta
· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaian.

Elorrio - Getxo
· Domekan, 17:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - San Pedro
· Zapatuan, 17:00etan, Astolan.

Zaldia - Begoña
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

BIGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Lekeitio B
· Domekan, 11:30ean, Berrizko Berrizburun.

> ARETO FUTBOLA

MAILA GORENA

Sapuberri - Elorrietako Senses
· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.

Elorrioko Buskantza - Askartza Claret
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Presion Break - Erromotarrak
· Zapatuan, 16:40an, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA (2. fasea)

Elorriko Txiki - Bigoki
· Zapatuan, 15:05ean, Elorrioko udal kiroldegian.

Mallabia Tabirakolor B - Erandiotarrak
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian.

> SASKIBALOA

ZILARREZKO ADECCO LIGA (playoffetako bigarren partidua)

Zornotza Saskibalo Taldea - El Prat
· Zapatuan, 19:30ean, Larrea kiroldegian.

> MENDIA

MENDI IRTEERA

Gaztela Leongo Babia bailarara irteera
· Antolatzailea: Elorrioko Erdella Mendizale Taldea. Maiatzaren 1etik 4ra. Izen-emate epea apirilaren 28an amaituko da (www.erdellamt.com).

> SASKIBALOIA

Nazional Mailako liga irabazi dute Tabirako Baqueko emakumeek

Liga amaitzeko azken jardunaldiaren faltan garaipen biko alde ateratzen dio Tabirako Baquek Leioari; maiatzaren 16tik 18ra igoera fasea jokatu du



Tabirako Baqué emakumeen talde nagusiaren aurtengo argazki ofiziala.

> JOSEBA DERTEANO

Tabirako Baqué emakumeen talde nagusiak Nazional Mailako txapeldun dela jokatu du ligako azken jardunaldia, bihar, Burlatan (Nafarroa). Azken jardunaldiaren atarian lider dago eta garaipen biko alde ateratzen dio Leioari. Beraz, batere

presiorik gabe, gozatzeko partidua izango dute.

“Ez genuen espero eta lorpen zoragarria da”, adierazi du Itsaso Gartzia klubeko presidentea, eta jokalarien zein entrenatzailearen “implikazioa” azpimarratu du. Orain arte jokatuak 25 partiduetatik 21

irabazi eta lau bakarrik galdu ditu; tartean azpimarratzeko moduko garaipen bolada bi daude: bolada bakoitzean bederatzi partidu irabazi ditu bata bestearen atzetik. Gainera, momentuz mailako talderik saskiratzailena da 1.578 puntugaz: sailkapen horretan bigarren tokian da-

goen Donostia Bera Berak baino 48 puntu gehiago ditu.

Maiatzaren 16tik 18ra Estatu mailako Emakumeen 2. ligarako igoera fasea jokatu du. Espainiako Saskibaloia Federazioak oraindik ez du jakinarazi igoera fasea non jokatu den: “Guk igoera fasea sari moduan hartuko dugu, eta taldeari esan diogu presio barik joateko eta gozatzeko”.

Taldeak mailaz igotzea lortuko balu, klubeko zuzendaritzak igoera hori baliatu edo ez erabaki beharko luke. Erabaki hori hartzeko faktore nagusi bi aztertuko ditu zuzendaritzak. Batetik, alderdi ekonomikoa: partiduak estatu osoan zehar jokatu beharko lirarteke, eta horrek aurrekontuan gainkarga ekonomikoa eragingo luke; bestetik, hain talde gazteari hain maila indartsura igotzea komeni ote zaien pentsatu behar du.

